

6. HARREMANAK:

Gure enpresa eta haren bezeroen arteko harremana hasieran automatizatua izango da, online bidez salduko dugulako gure produktua.

Hortaz, automatizatutako zerbitzua jarriko dugu martxan, hain zuzen erregistratutako erabiltzaileak dituen online denda. Bertan, bezeroak errekonozitu eta bezeroen profilari egokitutako informazioa eta iradokizunak ematen dira. Horrela errazagoa egingo zaie erosketa bezeroei.

Gure merkatu-segmentuaren aldetik lortu nahi duguna hainbat motibazio dira, horietakoak nabarmenenak honakoak dira: bezero eta kontsumitzaile berriak lortzea, gure enpresak izango dituen bezeroei eustea eta salmenta kopurua handitzea.

Produktu hau asko salduta egongo denean eta behin jende askok gure produktua izanda, bezeroarekiko harreman-ereduaren alde egin beharko dugu, hau da, produktuan zerbait esanguratsua aldatu beharko dugu, gure bezeroek, berriz ere, gure produktu berriak eros ditzaten. Horretarako zerbait erakargarriagoa egin beharko dugu eta gauza berri asko sortu beharko ditugu, hala nola, produktua editatzeko modu gehiago.

